KANPOKO ERAGILEAK

Lurrazalean higadura eragiten dute.

1. HAIZEA

- Materialak garraiatzen ditu.
- Haitzak karraskatzen ditu (hautsi eta birrintzen ditu).
- Mendietan forma bitxiak sortzen dira.



Haizearen higadura

2. ITSASOA

- Olatuek higadura sortzen dute.
- Kostaldearen itxura aldatzen du.
- Urteak pasa ahala itsasoa gero eta barrurago sartzen da.



Itsasoko higadura

3. IBAIA

- Ibaien higadura garrantzitsua da.
- Haranak sortzen dituzte (V formako haranak).
- Ibilgua: iturburutik itsasoratu arteko bidea.



Ibilguaren zatiak:

- Goi-ibilgua: aldapa handia, ura azkar, higadura.
- Erdiko ibilgua: garraioa, ura mantsoago.
- Behe-ibilgua: ura mantso, sedimentazioa.

Ibaien higadura eta haranak

4. GLAZIARAK

- Izotz-masa mugikorrak dira.
- Higadura, garraioa eta sedimentazioa sortzen dute.



- Zirkua
- Mihia
- Morrena

Glaziarren higadura eta sedimentazioa

5. LURPEKO URAK ETA HAITZULOAK

- Ura barrura sartzen da.
- Harriak disolbatzen ditu.
- Kobazuloak sortzen dira.



- **Estalaktitak:** goitik behera.
- **Estalagmitak:** behetik gora.

Haitzuloak eta kobazuloak

6. BIZIDUNAK

- Landare asko → higadura txikia.
- Landare gutxi → higadura handia.
- Animalien zuloek eta hezurdurek lurra aldatzen dute.



Bizidunek eragindako aldaketak

LABURPENA

Kanpoko eragileak (haizea, itsasoa, ibaia, **glaziarrak**, lurpeko urak, bizidunak) eguratseko fenomenoak eta bizidunek sortzen dituzten prozesuak dira, eta horiek lurrazalaren itxura aldatzen dute.




LIVEWORKSHEETS

BARNEKO ERAGILEAK

Lur barnean sortzen dira.

TOLESTURAK ETA FAILAK

- Lur planetak plaka kontinentalak ditu.
- Bi plakek talka egiten dutenean (txokatzen direnean) mendikateak sortzen dira.
- Talka egitean batzutan lurra tolesten da hautsi gabe: **tolesturak** sortzen dira.
- Bestetan lurra hausten da: **failak** sortzen dira.




Tolestura
(lurra ez da hausten, tolesten da)

Faila
(lurra hausten da)

SUMENDIAK

- Irekigune bat duten mendiak dira.
- Magma tximinitik igotzen da eta kraterratik ateratzen da.
- Materialak: laba, harriak eta kea.



LURRIKARAK EDO SEISMOAK

- Lur barneko mugimenduak dira.
- Lurrazalean dardara nabaritzen da.
- Lurrikara sortu den tokiari **hipozentroa** deitzen zaio eta hipozentrotik gertuen dagoen lurrazaleko tokiari **epizentroa**.
- Lurrikarı batzuk suabeak dira baina beste batzuk oso fuerteak eta lurra suntsitzen dute.





Sismografoa
(lurrikarak neurtzen ditu)

Richter eskala

3,5 arteko lurrikara: ia ez da nabaritzen.
3,5–4,5: nabaritzen da baina ez du kalterik eragiten.
5,5–6,0: kalte arinak eragiten ditu.
6,1–6,9: kalte larriak eragiten ditu.
7,0–7,9: lurrikara handia, kalte oso handiak.
8,0tik gora: suntsidura handia eragiten du.

Barneko eragileek lurraren barneko mugimenduak eta energia sortzen dute, eta horrek mendikateak, sumendiak, lurrikarak eta beste hainbat formak eragiten ditu.

LIVEWORKSHEETS